

Literatura

Poesia kaiera
Anne Sexton

Itzultzailea: Harkaitz Cano
Susa, 2015



Amerikaren ahots

“AMERIKA,/ non daude zure egiaztagiriak?” galde-tzen dio erretorikoki Anne Sextonek (Massachusetts, 1928-1974) kontinenteari. Fikzio konfesion-laren musak, tripei hitzak jarri zizkien emakume buruargiro zoroak, depresioei adjektiboak jarri dizkio beste behin.

Hilekoak eta drogak ekarri zituen literatura lau xamar batera Anne Sextonek, eta bere garaiko olatuaren gainean lortu zuen errekonozimendua. Ez zen, zentzu honetan, beste idazle madarikatu bat izan. Sarien ez-tia –eta mikatza– probatu zituen, batez ere poesia alorreko Pulitzer-rearekin, 1967an, *Live or Die* liburuarekin.

Plath baino eratsuagoa eta aurreikusteko errazagoa, Sextonek amerikar poeta klasikoen segurtasuna ekarri zion zalantzaren garaiko lirikari, eta politika egitea lortu zuen kategoria ideologikorik erabili barik. Gauzak erakustearekin nahikoa zuen. Irakurleak bihurtzen du beraz Sexton aldarri: “Emakumeak beratzen jarria du bihotza./ Erauzi egin diote,/ eta kixkalita dagoelako/ azken ekintza bezala/ ur-xorrotaz freskatzten du errekan”.

Harkaitz Cano bera ere idazle ezagun baten uhin-bide bihurturik ageri zaigu antologia ondo aukeratutako honetan. Idatzia du donostiarrek berari Sexto-

nen heriotza egiten zaiola laburpen bat ederra: “Cougar auto gorriaren bolante aurrean jarri eta motorra piztu zuen gero. Baina ez motorra bakarrik –eta xehetasun hau ez da hutsala–, irratia ere bai. Anne Sextonen amaiera lazgarriaren teatraltasunak laburbiltzen du bere bizitza. Adikzioa, alaba ere

baden amaren larru babestailea, abiaduraren poz bizia, bere buruko ahotsak tapatzeko irratia”. Asaldatzen duten ahotsen korua ederto entzuten da antologia honetan. Canori ez zaio aditzen ia. Eta Sextonek gorrotatutako Jainkoaren imitazio inkontzientea garbiro dakusagu: Jainkoa bera dira bere maitasun, amorru eta salaketa ozenak. Poetak mundua oro erakusten digu, gauza itsusiak eta gauza bikainak, eta esan barik artez dena dela efimeroa, dena efimeroa dela sentitzen du batek. Sextonen euria eta inurri gorriak euskal irakurlearen esku daude orain Munduko Poesia Kaiaretan. Egia esan bildumarekin gozatzen ari gara, hunkitzen gaituzten irakurraldiak opatzen ari zaigu. Eta zehazki Sextoni buruz asko idatzi da, eta Sextonen idatziak han eta hemen argitaratu dira, baina orain behintzat esan dezakegu: euskaraz daukagu harribitxi hau. ■

Igor Estankona



Lartzandieta Baserria

Urdaiaga Auzoa, 44 · 20170 Usurbil (Gipuzkoa)

© 666 607 447 · inigohuegun@gmail.com · www.lartzaldiak.com

Koord. GPS: 43.266031,-2.067587